

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4195

138/2019 DEKRETUA, irailaren 10ekoa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzeko baita Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasun hauek okupatzea: Gordexola eta Gueñesen, Gueñesko Trasaraña eta Urtiaga auzoetarako eta Gordexolako Zaldu auzorako hornidura berria – 2. fasea proiektua burutzeko beharrezkoak diren ondasunak eta eskubideak.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, «Gueñesko Trasaraña eta Urtiaga auzoetarako eta Gordexolako Zaldu auzorako hornidura berria – 2. fasea» proiektuaren espedientea prestatu eta formalki onartu eta gero, proiektua gauzatzeko lur guztiak erabili beharra adierazi zuen.

2019ko otsailaren 7an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak erabaki zuen nahitaezko desjabetze-espedientea hastea eta ondasunen eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea, hamabost eguneko epean, prentsan eta 2019ko martxoaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (48. zk.). Geroago, 2019ko apirilaren 15ean egindako bilkuran, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion proiektuak eragiten dituen eskubideak eta ondasunak lehenbailehen okupatu behar direla deklaratzeko, Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Urgentziaz okupatu beharreko ondasunak eta eskubideak zehaztuta eta banakatuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, identifikazioak egiteko datu askirekin agertu ere. Zerrenda hori jendaurrean jarri zen egoki zenean, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, administrazio-espedientean adierazten denez.

Zerbitzu teknikoek ikusi dutenez, ez dago espedientea izapidetzeko inolako hirigintza-oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezintzat jotzen da, honako arrazoi hauengatik:

Abonatu guztiak sareko urez hornitu beharra, iturburuko uraren orde. Honek ur-hornikuntzaren kalitatea eta jarraitutasuna bermatuko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio: nahitaez desjabetu beharreko ondasunak eta eskubideak urgentziaz okupatu behar direla deklaratzeko, nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen dituen: burutze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketa dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jarduketak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, lurralde-antolamenduaren eskumenak dituen sailburuari zegokion horretarako proposamena aurkeztea Jaurlaritzaren Kontseiluari.

Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak proposaturik, eta Gobernu Kontseiluak, 2019ko irailaren 10eko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

2019ko irailaren 13a, ostirala

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Urgentziako deklaratzeari honako ondasun eta eskubide hauek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak okupatzea, nahitaez desjabetzeko: «Gueñesko Trasaraña eta Urtiaga auzoetarako eta Gordexolako Zaldu auzorako hornidura berria – 2. fasea» proiektua burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak. Betiere, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztuta eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aurretiaz berraztertze-errekurtsoa jar dakiokelako Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Epeok dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 10ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.